

**Mila urte
igaro eta,
ura bere
bidean**

ANDOLIN EGUZKITZA

SS poesia
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 1993 Andolin Eguzkitza

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 1993ko iraila

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Marisol Jacàs eta
Hadassa Moscovici-ri
hainbeste maitasunaren ordainez*

Los Angeles-en,
1984.eko otsailaren 26an
igandearekin hasia.

Gizaki bi bat direnean
beren bihozparrenetan,
hautsi egiten dute
altzairu eta brontzearen indarra ere.
Eta gizaki bik elkar ulertzen dutenean
beren bihozparrenetan,
gozo dira haien hitzak eta sendo,
orkideen lurrina bezala.

(Konfutzio)

«I Ching»

E non voglio esser solo. Ho un'infinita fame
d'amore, dell'amore di corpi senza anima.

...

Ti supplico, ah, ti supplico: non voler morire.
Sono qui, solo, con te, in un futuro aprile...

(Pier Paolo Pasolini)

«Supplica a Mia Madre»

Andolin Eguzkitzaren poema liburu honen atarian ez nuke nahi irakurlea bere bidetik gehiegi aldaratu. Liburu batez ari garenean, eta batez ere poesia liburu bat baldin bada, irakurlearen egiteko nagusia tes-tura zuzenean jotzea da, poemekin solas pertsonala hasi eta inoren arartekotzarik gabe bere harreman propioa garatu haiek proposatzen dizkioten arazo, gai eta sentimenduekin. Idazlearen ahotsari belarri eman eta beste guztiaz ahaztu, behintzat irakurketak irauten duen denboran. Kasu honetan ere hala behar luke segurik, baina argitaletxeetako konbenzioek besterik agintzen baitute, haiei men eginez lotuko naiz ondoko lerroetan hitzaurre izenez ezagutzen den tramite akzesorio hau burutzeari. Baina arrunt jabe-turik, hargatik, aurkezpen guztiak gorabehera liburu honek, beste guztiek bezala, bere indar soilez ebaki behar duela bere bidea eta buruzkatu bere patua.

Andolinen poema bilduma honek osatzen duen hitzezko hiri hau etorbide nagusi batzuen inguruan eraikia dago. Amodioa, Bidaia, Hizkuntza, Denbora, Bakardadea derizte etorbide horiei. Horiek dira arda-tza, eta horietan barrena proposatzen zaigun ibilaldia burutzen duenak *déjà vu* delako horren sentipen bat

borogatuko duelakoan nago. Poesiaren Hiria zaharra baita, eta autore bakoitzak proposa diezazkiokeen berrikuntza eta emendioak gutxi baizik ezin izan daitezke. Errausketan bezalaxe, eraikuntzan ere muga bat dago. Mutur bien arteko teinkan sortu du Andolinek ere liburu hau, molde zaharren eta kezka berrien sintesi pertsonal eta aztoratua.

Amodiozkoak bezainbat, desamodiozkoak dira Andolinek dakarzkigun poema hauetarik gehienak. Mendebaldeko gizarteak ulertzen duen eran, amodioa poeta probentzalek Platonen eskutik garatutako konstrukzio artifiziotsua da. Bere muina ezintasuna, eta bere saria komunio mistikoa. Andolinek ikuskera berdintsua garatzen du liburu honetan, baina XX. mendeko semea izateak inposatzen dizkion ñabardura ezinbestekoekin. Umberto Eco nonbait idatzia duen bezala, gaur egun ezinezkoa da «Maite zaitut» inpunitatez esatea. Esaldi hori apenas dagokion gure aldiari, geltokietako nobela arrosotako pertsonaiei eta Hollywoodeko filmeei ez bada. Gauregun, eta aurpegira barre egingoetz badigute, esaldi hori ontsalaz ironia kutsu batekin esan behar da: «Corin Telladoren pertsonaiek esaten duten bezala, *Maite zaitut*», edo holako zerbait. Baitezpadako ñabardura horrek,

mendebaldeko literatur tradizioko *topos* batzuk denborarekin nozitu duten higadura erakusten du. Ihar-duera politikoaren muga etikoak gizonaren integritatearen perilik gabe noraino luza daitezkeen jakiteko *post-Auschwitz homo sapiens* espezieko kide bihurtuta gaudela konturatu beharra daukagun bezala, poesia sinesgarri eta iluminatzailea izkiriatzeko ere, *post-Barbara Cartland vates* izateaz ohart izan behar dugu, edo izan behar dute lanbide horri ematen zaizkionek.

Andolinen poemei dagokienez, ene ustez alde horretatik lasai egon gaitezke. Maitasunaren trataera, nik juzka dezakedan neurrian, benazkoa eta matizatu da. Erromantiko zaharren heredentziari uko egin gabe, bere amodiozko poemak antsia eta durduzadura modernoaren lekuko zehatza dira. Amodioa egarria da, eta urradura da, hots, asezintasunezko izanera da. Eta, batez ere, platonismo ortodoxoaren goratasun mistikoetatik eguneroko bizitza arruntaren maila lurkoira eroritako fruitu mailestua. Andolinen poema hauen atarian Pasoliniren lerro etsigarri hauek agertzea ez da noski kasualitatea: «*E non voglio esser solo. Ho un'infinita fame d'amore, dell'amore di corpi senza anima*». Arimarik gabeko gorpu-

tzen amodio-egarria. Holako diosalaz agurtzen gaituen liburu bat, bixtan da, ezin egon daiteke kokatua XIV. mendeko Probentzan. Aitzitik, XX. mendea da horren egoitza naturala, eta bakardadeak, urradura eta giza harremanen ezintasunak definitutako anbito samin bat bere koordenada ilun eta problematikoak.

Andolinen poemak irakurriz, artetan pentsatzen dut ez ote den sensualitate edo boluptuositate mailara endekatutako amodioa bere poemetan bilatzen, irrikatzen, edo deitoratzen ari den hori. Dudarik gabe, fisikotasunak gaitzeko garrantzia du liburu hone-tan; hainbestetaraino non, orriz barik haragi biziz egina izan balitz, bere zain guztiak kurritzen dituen odola dela esango bainuke. Larrua, begiak, eskuak fe-reka baten bila, ezpainak ezpainen xerka, gorputzen zirrada, nahikundea, desira... guzti horiek amodioa-ren gorputza osatzen duten elementu ukikor eta erreal bakartzat hartzen dira hemen. Amodioa hiz-kuntza ezezagun bat balitz bezala, eta pasioz piztuta-ko gorputzak gaurko gizasemeak ebaki ditzakeen ha-ren hitz bakarrak. Sensualitate joku hauetan Andoli-nen poemak zinez eraginkorrak iruditzen zaizkit eta, eraginen kontuak batere garrantzirik ez duen arren,

nago Kavafisen itzala ez ote dabilkigun inguruan barrandan behin baino gehiagotan. Irakur bestela:

*Hainbeste lore ihar,
hainbeste lizundi hats txarreko,
hainbeste arbuio zoli,
hainbeste destain mazal,
eta halaz ere
hainbeste maitasun
(Donald Justice-ren Arauera)*

Lerro horien eufonia delikatua eta sentimendua-
ren herabetasun etsituak Alexandriarraren bertso ho-
berenen oroitzapena pizten du ene gogoan, eta ez di-
ra bakarrak liburu honetan. Orohar, kidesasun hori,
Andolinen poema askotan antzematen den harreman
interpertsonalen egarri-kalda iziotuaren adierazpen
guztietara hedatzen da. Tesia sinplea da: pertsonak
elkarretara lotzen dituen lokarriak ezinago hauskor
eta uzter dira, eta hauskortasun, kasik ezintasun ho-
rren burdin-hesien barruan bizi beharrak dakarren
segida oinazea da. *Aspaldiko Irudi Bat* izeneko poema
dugu sentikera honen adierazpen argia, eta handik
ateratako ondoko lerro hau berriz, bere soil eta xu-

mean, Andolinek liburu honetan adierazi nahi digun mezuaren sintesi fidela: «*Baina firu hori eten egin zen, Hadassa*». Firua beti eteten dela, alegia, eta bakardatea beti berriz hasten.

Andolinen poemak elikatzen dituen izerdia beraz, amodioaren premia eta ezintasuna da. Ez dut uste gehiegi arriskatzen naizenik baldin esaten badut poemario hau, funtsean eta beste ezer baino gehiago, giza harremanen prekariedadearen eta pertsonen arteko komunio iraunkorra mamitzeko ezintasun objektiboaren inbentario liriko bat dela. Liburu hau horrela ulertzen duenak, aisa ulertuko du honelako ahapaldi gogoangarri eta samin bat:

*Eskandinabiako zoko ilun, Jukatango argietan,
ileak urdinu ahala, ilunabarra hurbildu
bitartean,
ibili garelako beti frutu bakararren antzietan:
besarkatzea beharrezko zaigun gorputzaren
esperantzan.
(Lehenengoz)*

Edo bizitza amodioz arrailtzea bezala definitzen duten bertso mingar hauek:

*amodioz arraitzea delako bizitza,
zapi zaharren moduan higatzea.*

(Tamarindoak)

Ideologiaren okasoa iragartzen bide diguten garai hauetan, lehen baino areago poetak bere mundua eraikitzeko, bere bizitza bera eraikitzeko, ezin jo dezake ideologietara, edo fedeetara, edo asmo eregiatarara. *Mourir Pour Des Idées* izeneko poeman George Brassens-ek ironia sotilez erreibindikatu zuen aspaldi idealismo totalitarioekiko desatxekimenduaren beharra: *Mourons pour des idées, zioen, d'accord, mais de mort lente*. Andolin Eguzkitzaren poemek ere neurri batean izpiritu horrexen lekuko agertzen dira. Balio eternoko eta dimensio epikoko jarrerari bizkar emanaz, bere arreta eta begirada, pasakor, ilaun eta pertsonal denaren alde itzultzen du. Gure mende honetako gizakumea izaki zatitu eta deserrotu bat denez, bere erreferentzia eta babesak ezin izan daiteke zatikako eta probisionala baizik. Udako gau zohardietan zeruan antzematen diren izar loken antzera erratzera eta suntsitzera behartuak gaudela dirudi, eta bulnerabilitate mingarri horren kontra babesteko garatzen

dugun estrategia, poema hauetan aurkitzen duguna bera da: errealitate konkretuen alderako leialtasun erresignatua, errealitate hori izan dadin maitale bat, herri bat, hizkuntza bat, ala, soilik, iraganaren eta etorkizunen sedukzioaren gainetik bere garrantzia oihuz kridatzen digun presenteko ixtant oraezina.

Andolinek liburu honetan eskeintzen diguna ari-
ma deserrotuaren pelegrinaje lirikotzat hartu ezker-
o, orri hauetan nabarmentzen diren elementu batzuk
errezago dira ulertzeko. Hizkuntza, edo hitzak, dese-
rrotzeari aurre egiteko eta zentzua eraikitze-
ko tresna bihurtzen dira:

*Hitzak ditut adreilu bakarrak,
labur eta luzeak,
bihotz handiko eta meharrak,
neure abaroa eraikitze-
ko beti ere eskura
dauzkadan
tresna bakarrak
(Hitzak)*

Literatura eta Bidaia, berriz, norberaren desio
eta beharren neurrira eraikitako aberri propio bat
sortzeko bitartekoak. Jakinekoa da bidaia dela mo-

dernitatearen metafora nagusia, baina ez Goethe edo Burton-en denboran bezala esplorazio eta ikasketa fidantziaz betea bezala ulertua, ihesa edo zentzu-bilatzeko esportzatu bezala baino. Andolinen poemetan bidaia oropresentea da, eta horren ondorioa da hemen daukagun toponimoen inflazioa: Praga, Budapest, Viena, Zürich, Munike, Kalifornia, Oxford, Hamburg, Paris, Groenlandia, Chicago, Barzelona, New York, Ottawa, Los Angeles, Suitza, Bilbo... Hirizko elementia horrek osatzen duen hondoaren kontra bidaiariak proiektatzen duen perfila ez da bere aurpegiarena, galdera-ikur haundi batena baino. Eta poemak berriz, bilaketa ekumeniko horren harian Andolinek eraikitzen dituen bere aterbe eta pausaleku probisionalak baizik ez dira. XX. mendeko arima deserrotuaren aberri mitikoa irakurketez eta bidaiez osatutako mundu pertsonala dela xuxurlatu nahi izango baligu bezala.

«Afirmatzeko, justifikatzeko eta esperientzien oroitzapena gizonen gogoan finkatzeko hizkuntza naturala gauregun prosa da», idatzi zuen G. Steiner kritikari famatuak. Ene ustez hitz artez horiexetan biltzen da egungo poesiak bizi duen krisiaren muina. Agian zuretzat ez, liburu hau erosteko nekea hartu duzun irakurle horrentzat, baina poesia bizitzatik

kanpo dagoen zerbait iruditzen zaien gure mendeko beste hainbeste eta hainbeste lagun horien indiferentzia eta mespretxuaren aurrean poesiak lehen aldiz behar du bere burua argudioraz justifikatu eta bere buroarentzat toki egiteko borrokan sartu. «Poesia zertarako?», da etengabe entzuten den galdera; «Liburu hau zertarako?», berriz, beharbada zuk orain Andolini eta niri egiten diguzuna.

Niretzat erantzuna erreza da: positibismo kartesianoaren porrotaz geroztik (afirmatu, justifikatu eta erregistratu baizik egiten ez zekien pentsamolde baikor horren kordokaz geroztik), XX. mendeko gizakumeari lantzea behartu zaizkion bere izpirituaren beste dimensio funtsezko horiek garatu eta zorrozteko: galdetzeko, zalantzak adierazteko, eta inguruan erortzen ari zaizkigun murruguztien errauskinekin gogoretaren bakardade eta iluminazioan zentzuaren eta esperantzaren abaroa eraikitzeko.

Interrogazio eta zalantza bide horretan barrena, euskal izpirituak ematen duen beste urrats bat da irakurtzera zoazen liburu hau.

Fermin Eguren

Abadiñon, 1993.eko maiatzak 11

ASPALDIKO IRUDI BAT

Hadassa Moscovici-ri

Arratsaldeko sei t'erdiak dira,
Martxoko azken ostegunekoak, ostegun saindukoak,
eta pinuen arteko pagoa bezala uzten nauen egun
goibelak
zure oroitzapena ekarri dit.
Oso da aspaldikoa
zugandik daukadan gomuta,
oraino ere zugana nerakarren gogoia,
hain sarkor,
hainbeste zentzazio bipilen bilgunea.
Linguistika-institutuko liburutegian ezagutu
zintudan,
eta eder ez izateagatik ere, erakargarri agertu
zintzaizkidan,
begi beltz, ile kirru eta jantzi
ez hain egoki.
Berbetan hasi ginen eta
bebingoan jakin nuen,
oi Hadassa, zein zen zure kemena,

zelakoa zure oldar eta larderia. Baina ez ninduzun
izutu.

Eta maitatzen hasi nintzaizun.

Eta hiru egungarrean
tea hartzera gomitatu ninduzun zeure gelara.

Beti bezala behera mintzo,
gauza asko kondatu zenidan.

Errumanian jaio zinela,
eta ezin zenezakeela musikarik entzun eta irakurri
batera.

Israelen hazi,
eta amarekin ez zenuela lar ondo konpontzen;
Norwegian eman zenuela neskazaroa,
eta aita oroz lehen maite;
azkenengo hamabost urtean Hamburg-en bizi izan
zinela,

eta laster osterara ere itzultzekotan zeundela.

Eta orduan

Hamburg-eko zerua hodeitzarrek bezala
ilunak ninduen harrapatu.

Gero birritan egin zintudan bisita.

Zure etxean sartzeko oinetakoak erantzi nituen,

eta iparralde arreko hiri ederrorren arratsalde
hitsetan

berba egin,
berbaz luze,
segundoak itzuri nahiko balira bezala.

Lakuetan barrena ere ibili ginen,
elkarri bihotzak erakutsi,
eta behin,
gaualdera afaldurik,
lehen egun hartatik geneukan elkarrizketa apur
baten moztuta,

esan zenidan:
«horretarako ez dago aukerarik».
Eta segitu nuen pozik zure berbak,
zure murmurio leunak entzuten.

Gero alde egin nuen.

Luzaro
elkarri segitu genion idazten,
elkar
gutunez eta gogoetez maitatzen.
Baina firu hori ere eten egin zen, Hadassa.

Eta haatik, egun,
hain ainube eta ozpel senditzen dudan Martxoko
arratsaldeonetan,

Hadassa,
haatik, oraino ere maite zaitut,
Hamburg-eko lili beltzarana,
bihotz bortitzeko neska panpoxa.

LAGUN LIRAIN BATI

D. O'Connor-i

*L'amor es el plaer
gratuit i sincer
un joc ple de frisances
un poema de pells
on el sexe es l'accent
d'un senzill llenguatge.
(Lluís Llach)*

Malakoak
darie ene begioi,
bitsa
arroketan erasotzen gaituzten uhin berde atseginei,
odola, aldiz,
ene nahikunde panpoxari,
orain
itsaso lehorrerantz noalarik
ezak zurrupatua,
desirak baldartua,
amildegi honetan behera

maitasunaren zalantzak
bultzatua.

Allegro goibel honetaz narama
tristeziak,
zure gorputz
sendo, polit, beltzaran,
azal leunaren
nahiak,
ene besoarteko
eguzki printz bero antzo
zure sotiltasunaren
finak,
zure ezpain,
zure ile eta
begien indarrak.

Zuhaitz tinko,
kemena,
amodio garaitezina.

ERRAN BAINIZUN BATETAN

M.M.-i

Behin baten erran nizun
enekin etortzeko,
bidea zegoela libre
eguraldia berriz bero,
mendian lainoa hurbil
eta plazan giroa ero.

Eta ezetz erran baitzenidan
nigarrez
desegin nintzen zoro.

Behin baten erran nizun
enekin etortzeko,
itsasoa zegoela bare
ezkien pean berriz bero,
kaleetan zehar goibel
eta ene desiretan ero.

Eta ezetz erran baitzenidan
minez
lehertu nintzen zoro.

Erran bainizun batetan
enekin etortzeko,
itsaso lehorrean zurkaiztutako
bapore antzo
nago,
amodiotan egarriz,
zure gorputzaren gosez,
elkarren zoriontasunaren gurariz:
hasikinetan berriro
heriotzearen hodeiartzean bakarrik
amaitzen den
bidezidorraren erdian.

A MIDSUMMER'S NIGHT DREAM

Ch. Terán-i

Bago desiratuak bezala
ene ametsen baso beltzean,
hala irudikatu haut
egun
maitea,
sendo, zirats, azal leun,
bihotz ezta.
Baina ilargia ezkutatu delarik
eldarnio bihurturiko
ametseder baizik
ez haiz izan,
hasuin bilakatu krabelina,
desplazer izandako irrits-gura,
udaren erdiko iluntze
batetan
egindako ametsa.

DESIRA

V. de la Vega gogoratuz

Espainiako eremuetan egon eta gero,
ordoki horietatik beherantz
atzera nator abiadan,
lautada latz horietako gorputz sendoek
—bipil eta beltzaran—
bular, hankak eta erraiak
jarri ondoren sugoritan.

Gaztelarantzako bidean
ezin jakin zer espero,
gainera heldu eta
elurra guztiz bero.

Orain, hotzik nator beherantz
tren honen barruan,
besterik ezean izanagatik ere
luma hartu dudala eskuartean:

ilunabarra heldu orduko
itzartzen ohi baitira ibaietako arrainak,
eta zeruetako ostarteek ez ohi dutelako
sasi bat baizik desira,

sasi bat gordina,
mardul eta karana,
azala igurtzi eta
irritsa ugazaba;

ugazaba hagitz eder,
on eta ankerra,
nitaz jabe dadin,
nik emanen guztia.

Gorputz bat eztia
eduki gura baitut ziratsa
munduaz ahantzi eta
ederraz mozkortu ja.

BERLIN

G. Galartzari

*Hau jendeari buruzko poema da
pentsatzen dutenas eta
gura izaten dutenaz eta
uste izaten dutenaz gura dutela.
Beste ezer gutik baitu merezi
gurearreta munduan.*

(Natan Zach)

Ordoki zabaletan zehar
Erteuropako lautaden iparraldean
aurkitu haut egun,
Prusiako basoetan gaindi
haritzak, bagoak eta
masusta gorriak hazten diren
lakuen ibaiondoetan.

Praga, Budapest, Viena, Zürich, Munike,
Erteuropana,
Hofmannsthal, Roth, Kafka, Rilke,

juduak eta kristauak,
kaletren eta kafetxeak,
gaztanpastel eta antzokiak,
alemanezko poemak eta
amodiozko minak.

Eta hire musika pianoan entzuten dudala,
bihotza banatzen ziaidak
hire kaleak —eta eskuak— bezala: alde batean
«Unter den linden»,
bestean
«Kurfürstendamm»,
alde batean desira,
etsipena bestean.

Zeren harresi bat
erdi-erdian sortu baitugu,
zornetartez inguratua,
iluntze hotz luzeetan
kearteko elkarrizketarik eta
musu ezkaturik ikusiko ez
dituzten tabernarik gabekoak,
satsez beteak, eta saguez eta
oroimenez,

gerrateko balek egindako zuloak
agerian,
eta gure arteko destainek.

Eta haatik oraino ere higan diagok
ene esperantza,
hiriaren gaineko gaztelua
betiko zabalduko duen Erteuropako oldarra,
koldarkeriaren zantzuak
deseginen dituen
geure gorputzen eta izpirituen
lehen promesa.

OTOITZA

J. Soltxagari

Melitxu Basurtuko

piko meladua

(Gabriel Aresti)

Julieta Alloko
Nafarroako masusta gozoa,
maitasunaren emaile eta
Lizarrerriko haritzetan ederrena.
Barreia bitez
zure sabelaren fruitu onak
Euskal Herri osoan!

KALIFORNIA

Marisol Jacàs-i

*Amour, où sommes-nous? Est-il sûr que
nous sommes?*

*La lune qui pâlit d'avoir pitié des hommes
Au bord des toits déserts verse un sanglot
d'argent.*

M. Yourcenar)

Erdiko Itsasoaren magalean
Raimon Llull-en antzera,
ardantza berdeen altzoan jaio hintzen hi Soledat
ederra.

Eta hark bezala landu oroimenaren bidez
bihotzean haukat beti ere
neska beltzarana.

Kalifornian ezagutu hindudan,
Omegan,
Alfa haatik

gure maitasunaren itsasketan,
eguzkigalden pean
neure burua hire berba eta
belarri leunen golkoan,
oi Soledat, neska liraina.

Kaliforniako otarte lehorretan
arantzak, kristikinsugeak,
automobilak, hondartza amaigabeak,
amodio faltsuak,
aire satsu eta
oi Soledat, hire adats fina.

Bartzelona,
New Yorka, Ottawa
eduki hituen makulu,
esperantza onen landaminak,
loria, lore, lili ziratsen
sorguneak.
Los Angeles, osteria,
herioak ekarri minen senditzeko aurkientza,
desesperoek eragin sufrimendu latzen jasanleku,
baina oroz lehen
bizi berriaren iturburu,

oi Soledat maitea,
neska beltzaran,
bihotz zabal, gorputz ederra.

Kaliforniarantz abiatu nindunan
etorkizunak ekarriko zidanari
ezin igarriz,
esperantza onez betea
eta, oi Soledat, bakartadearen jopu
ene arima.

Pazifikoren jainkoek, ordea,
hi eskaini zidatenan,
Erdiko Itsasoaren fruitu,
mertxika gozo,
adiskide ona.

GROENLANDIA

*The best lack all conviction, while the
worst*

Are full of passionate intensity.

(W.B. Yeats)

«**H**orra hor Groenlandia» iragarri zuen
ahots-gorailuaz

Chicago-ra ninderaman airekoaren kapitainak:
eskimoen desertu zuri, eremu emankor,
ehizan ibiliriko hainbeste
bihotzen suspergarri.

Groenlandia eskerga
gizakiaren ametsen kokaleku.

Zure ondoan, ostera, Islandia sotila,
goroldioz berde,
elurrez zuri, sumendiz bero,
biak amodioz
leun eta zoliak.

Zuok izan baitzineten
Eskandinabiako jende kementsuen ihesleku,
sageetako gizaurenen erretiragune,
zuhaitzik gabe, malkor, zabalak.
Zuok baitzarete
europar zaharron askatasunguren
lore hilgaitzaren lur gorria.

Zeren odola isuriz baitoa.
Zeren arimak usteltzen dituzten.
Zeren hil gura baitizkigute esperantza zuriak,
itsasagerretako
haize eta belar bigunak,
oihanetako eguterak.

JENDE ZUHURREN ARTEAN AFALDU NAIZ BART

Dana emon bear jako

maite dan askatasunari

(Lauaxeta)

Jende zuhurrez inguratua afaldu naiz bart.
Eta saiatzeagatik ere
ezin izan dut ezta garaurik ere maitatu,
hain baitziren zuhur,
hain baitziren artatsu eta ordenako,
diruaz, jendeen esamesaz,
eta oi Jainkoa
indarkeriaz, odolgaiztoaz eta besterenganako
errespetuaz.

Horregatik, Jauna,
beldurrez eta guztiz ere,
Ebanjelioko fariseua bezala senditu naiz,
ez bainaiz, oi Jainko ahalguztiduna, haiek bezala,

azalez eder,
bihotzez zahar,
amodioz
zikoitz, seguru eta boteretsu.
Euskalduna bainaiz,
Euskal Herriko lur sagaratuaren seme errumesa,
mundu honetan ezin lapur diezadaketen dohain
bakarra.

*Massachusetts-eko Cambridge-n
1989.eko udazkenean*

GAUR ARRATSALDEAN

*Plaisir d'amour
ne dure qu'un instant
chagrin d'amour
dure toute une vie.*

Gaure arratsaldean
maite duan lagun bategaz egon haiz berbaz,
etxean, bibliotekaren erdian
bazkaldu zareten mahai borobilaren inguruan.
Hotz zuan kanpoan eta
luze ibili zarete, astiro, honetaz eta hartaz,
Espriu irakurri duzue, eta Kavafis, eta
Miquel Marti i Pol eta Yeats, eta Machado,
maitasunaz mintzatu zarete, eta bakartadeaz,
eta horrelako abagadunetan aipatzen diren topiko
guztiez,
beren buruekin bakea egin ez duten askok
hainbeste gorrotatzen dituzten gauzez.

Eta zoriontsu izan haiz
oso maite dualako adiskideori.

Azkenean baina,
itaundu dioanean adiskidantza
lotura sendoago batez josi gura lukeen,
ezetz erran dik, ezin duela,
eta zoriontsu izanagatik ere, nigar
egin duk heure bihozparrenean,
berak ez ikusteko moduan.

Agur egitean
maitasunez eman diok musu,
heriotzeak
bakartadean harrapa hintzakeelako
beldurrez betea.

OI ENE MAITE BEGI BERDEKO

*Zure begiek
ene maitia
badute biek
dirdir eztia.*

*Zeru kolore
miresgarriak,
izarren pare
xoragarriak.*

(Daniel Landart)

Neke neke eginda
begiratu zaitut gaur
goizean
gau osoa
zutaz gogoetaka eman eta gero
ustekabez agur egin didazunean
pasabidean,
orduan
zure begi berde

ederrek
dardarazi naute,
eta joan zatzaizkidalarik
ostera ere
nigar eragin.

NAFAR HAIZEA

Hegoaizea

Espainiara ezkondu

Nafarroa Behereko printzesa;
mendebalaren ekarle minbera

Iparraizea;

Nafarroatik heldu zaidan haizea, osteria,
desertuetako irudikerietan gorputz lerdan eta ile
holliko

palmondo bakartien antzo,
maitasun, desespero eta
ene beldurren ureztatzailea.

HAMALAUARKUNA

*Gizon bat naiz betaurrekoekin
sudurrean eta bihotzean
larrazkena.*

(Isaak Babel)

Den dena badoa erran zuen
Heraklitok zorionarekin
gogoratu zen ereti baten,
goibel, bere bihotz-minarekin.

Eta zerua dagoela urdin,
nola latsetako ura garden,
lurra udaberrikari gordin,
itsasoa den bezala lerdin,

zuk, laguna, esteka nazazun
zeure besartean indar latzez,
laztan jori eta musu aratzez,

betiko, ene dasta dezazun,
otoitz, nigar, jauzi dut eginen,
neure gorputza osorik emanen.

ORAINA

*Iraganak
sortu nau olerki gisa
nik
etorkizuna dut jarauntsi
ene arnasari
orain deritzo.*

(Rose Ausländer)

Eremu latzetako bero kiskalgarria
lakoxea.

Nebraskako zelaietan
egunsentirainoko hotza bezala
Otsailaren erdian,
mugezin eta langarik gabeko.
Tximist zorrotzak abaildutako zuhaitz
lirain antzo,
lurrean etzanda, saporik ezaz
goseak hilda.

Hi haut haatik bakarrik
geroa ez baita heldu

eta iraganak baikaitu ja abandonatu,
hi maitea,
hodeiertzaren argi soila,
ezpainak busti diezakizkidan
masusta beltza,
hi maitea,
sendabelar bakarra.

Arren, utz iezadak hire gorputz ederra maitatzen,
utz iezadak geure bihotzak estekatzen

izan gaitezkeen zorioneko,
ase gaitezkeen plazerrez,
irritsaz, piko bigun, mailuki urtsuez,
iragan eta etorkizunik gabe,
hil gaitezkeen elkarren gosez.

TRENEZ BANINDOA BEZALA

*Molt he estimat i molt estimo encara.
Ho dic content i fins un poc sorprès
de tant d'amor que tot ho clarifica.
Molt he estimat i estimaré molt més
sense cap llei de mirament ni traves
que m'escatimin el fondo plaer
que molta gent dirà incompreensible.
Ho dic content: molt he estimat i molt
he d'estimar. Vull que tothom ho sàpiga.*

...

(Miquel Marti i Pol)

Suitzako trengeltoki erraldoietatik
lehenengoz
iragatean bezala,
hala daukat orain gorputza,
zu ikustean,
dardaraz,
bidebazterretako ipuru eta ereinotzen lurrin antzo,
zure begi berdeek, ile holli eta
irripar xarmantak

nahasten didatelako,
Bilbo zahar honetako kalearte eder eta meharretan,
izpiritua gezalaz.

Gezalaren usainaz itsasbazterrean bezala
horditzen naizelako zure gorputzaren zirraraz,
trenbagoietako
leihoetan legez isladatzen delarik
ene oroimeneko bistan
zure dudan
hilezinezko gogorapena.

Maite zaitut eta ez dakit nola,
hain baita zail
izarrik gabeko oihan beltz honetan
pagoei erreparatzea,
zure usain zoliaren adorerik gabe
arnasa hartzea,
ene oheko bakartadean
zure gorputz ziratsaren zantzurik gabe
lo egitea.

Maite zaitut eta ez dakit nola
biziko naizen zure zaratotsik gabeko

mundu gor honetan,
azantzez blai dugun lur antzuonetan,
autobideez eta aireportuz
gainezka dagoen eremu
larderiatsuan.

Maite zaitut eta ez dakit nola...

DONALD JUSTICE-EN ARAUERA

*The Thin Man
indulge myself
In rich refusals
Nothing suffices.*

*I hone myself to
This edge. Asleep, I
Am a horizon.*

(Donald Justice)
«Selected Poems»

Maite zaitudalakotz naukazu
beti
zure esperoan,
maite zaitudalakotz
beti
zurekin egotekotan.

Autobusetan sartu orduko
eta gidariari txartela ordaindu,

goizean goiz garbitu bitartean
eta neure aurpegia ispiluan ikusi,
hor zauzkat
beti
bizitze honen hodeiertz amotza
zorrozten lagunduko didazulakoan,
lertxoinen ene saldoari
Afrikarantz zuzenduko duzulakoan,
eta hegoaren beroaz xamurtuko zaizulakoan
eneganako bihotza
hor naukazu
beti
zure gorputz eztiatz
gozatzeko esperantzan.

Lo egitean eta ibiltzean,
jaiki eta etzatean
zaitudalakotz maite
ezin zaitut begien bistatik kendu,
ezin zaitut bihotzean hil,
ezin zaitut neure oroimenaren landaminetatik iraitzi,
ezin naiteke zurekin ahantz.

Hainbeste lore ihar,

hainbeste lizundi hats txarreko,
hainbeste arbuio zoli,
hainbeste destain mazal,
eta halaz ere
hainbeste maitasun.

Maite zaitudalakotz
prest naukazu
beti
zuganantz joateko,
maite zaitudalakotz
beti
zure gorputzarengana ekantzeko.

LEHENENGOZ

Las primeras canas asoman ya a mis sienes, la juventud se va... A veces sueño despierto, sueño antes que el otro sueño de verdad me haga olvidar todo, hasta mi soledad.

...Soy vasco. Algunos se ríen, otros me odian. Es todo lo que me queda cuando el desaliento me domina y camino por las calles a la deriva... Yo no soy nada, un amasijo de pasiones y anhelos sin calmar. Pero soy parte de ese pueblo.

...Estoy solo, solo con mis angustias. Pero seguiré adelante, aunque nadie me comprenda en esta Babilonia. Y algún día me tenderé a dormir junto al chopo que escogí en lo alto de la colina, en un valle solitario de mi pueblo, a solas con mi tierra y mi lluvia. Estas me comprenderán al fin.

(Jesús de Galíndez)

Egunotan senditu dut lehenengoz
ulertu dudala. Ulertu dudala
bidezidor guztietan gaindi
ez dela Erromara heltzen,
errekastoetan ez direla harri guztiak leuntzen,
eta larrazkena delarik

zergatik nire bihotzean ez duen atertzen.

Sarritxutan erein baitut harrien gainean,
bidebazterretan,
ipar eta sartaldeko ozeanoez bestaldean dauden
herri urrunetan,
eta berde eta harro eman arren
belar txarrez beterik baizik ez zegoen zoropilean.

Lore koloretsuen itxaropenaz,
zuztar zinbeleko zuhaxka sotilen esperoan,
eta beti ere,
ahuntzei bezala,
hosto eder eta ernamuin gozoko zaizkidan landareak
batuko nituelakoan:

Gorputz lirain,
lohadar zirats,
ile holli eta begi berdedunak,
gerritik oratzean
mardul eta fin senditzen direnak;
azal gozo,
ezpain lodi,
haragi gogor eta zailekoak,
ukitzean

Ekaineko txermenen antzeko somatzen direnak,
edo eta gertutik heltzean
ur freskodun iturburuaren pareko,
bero eta egarri bagina bezala
Iparrameriketako Hego Sakonean
—Alabama, Tennessee, Arkansas—
Agorrilaren hamabostean.

Egunotan ulertu baitut lehenengoz,
Irlandan irak eta goroldioak Islandian bezala,
erauntsiez —eta haize hotzaz— ernaltzen direla
 amodioak,
lurra emankor bihurtzen,
sortzen esperantza onak.
Grezia, Egipto, Asiriako hirietan,
Txinako lautadetan zehar,
Japoniako lur martirian,
Eskandinabiako zoko ilun, Jukatango argietan,
ileak urdinu ahala, ilunabarra hurbildu bitartean,
ibili garelako beti frutu bakararren antsietan:
besarkatzea beharrezko zaigun gorputzaren
 esperantzan.

HITZAK

Egon hakio
heure hitzari
fidel!

Ez hau
abandonatuko.

(Rose Ausländer)

Hitzak ditut adreilu bakarrak,
labur eta luzeak,
bihotz handiko eta meharrak,
neure abaroa eraikitzeko beti ere eskura dauzkadan
tresna bakarrak:
Bilbon edo Hamburg-en,
Gasteizen edo Iruñean,
goizaldeko hiruretan itzartzen naizenean
ohean edo
hutsesten zaitudan guztietan.

Trenez eta automobilez,
neguminez eta udabetean,

iparraizea datorrenean
hotzez,
edo hegoaizeak
beroz
zorutzen didanean gorputza.
Hitzak ditut adreilu bakarrak.

Horma sendoak egiteko
harrizarrak bezalakoak baitira,
lurrikaretan eta haizezurrunbiloetan,
gorrotoaren denboran eta
barre eta amodioa egitearenean,
betiereko azken agurreraraino
zure besoen faltan
estalpe xume eta amoltsua
eskaintzen didaten bakarrak.

TAMARINDOAK

*Joanak joan
berriak etorri
trixturari
adarka
ez nuke nahi bizi*

(Gabriel Korta)

Atzo,

Etxe Pherdiaren azpiko tamarindoak ikusi nituen
ostera ere.

Hogeahamazazpi urte dauzkat eta
luze gabe

hogeitahamazortzi beteko ditut,

Miarritzeko eta Usategiko tamarindoak oro
bezain ederrak,

saparen kemenaz eta biziguraz

arrakaltzen diren tamarindoak oro

bezain lirain eta indargeak,

ttiki eta biziak,

lur eta lika beltzez lotuak,

hiltzera kondenatuak: tamarindo sotil, zirats, zabal
eta
ahulak.

Egun,
itsasagerreko tamarindo horiek oro gogoratzean,
hogeitahamazazpi urte dauzkadala eta
luze gabe hogeitahamazortzi betetzeko nagoenean,
lainoarteko eguzkiak argitzen duenean itsasoa
Abenduaren batean,
ostera ere egin dut gogoeta maitasunaz eta bizitzaz,
amodioz arrailtzea delako bizitzea,
zapi zaharren moduan higitzea,
Ameriketara,
Atlantikoaren gainetik hegazkinez egindako bidaien
antzekoa
esperantza onez betea eta
zaratotsez, lekurik ezaz, ondokoengana ezin
biltzeaz,
hainbeste oztopo eta atxakia direla bide,
nekeziaz bukatua.

Egun,
luze gabe hogeitahamazortzi urte betetzeko

nagoenean eta

tamarindoekin oroitzean,
ostera ere konturatu naiz
mila urte igaro eta
urak

beti segituko duela bere bidean.

*Algortako Abraren gaineko Usategin,
1991ko abenduaren 1ean.*

PANTA REI

*Sao as formas sem forma
Que passam sem que a dor
As possa conhecer
Ou as sonhar o amor*

*Sao como se a tristeza
Fosse árvore e, uma a uma
Caíssem suas folhas
Entre o vestigio e a bruma*
(Fernando Pessoa)

Ura bezalakoa naiz,
libre, labankor, orakaitza,
inon edeten ez naizena,
inork hartzen ez nauena
eta erreten pare bat igarota,
malkorik malko
itsasora heltzen naizena.

Ura bezalakoa naiz,
nigar eta laino,

euri eta lanbro,
itsas zabaleko tanta bat,
edo Ibañetako elur bustia bezalakoa,
libre, bakarti eta harrapakaitza,
eta horratik desertu izan nahiko nukeena,
oasiaren bila abiatuta
nigan berdin zenezakeen zeure egarria.

*Hamburg-en,
1993.eko urtarrilaren 8an ostiralarekin amaitua.*